



JOXE MIGEL BARANDIARAN
(1889-1991)

EgileaK:

JEXUX AIZPURUA BARANDIARAN
JON AIZPURUA BARANDIARAN

SARRERA

Askoren ustez, XX. mendean izan den euskaldunik unibertsalenaren aitzinean izanik, bere bizitzaren isla edo laburpena agertzeko, hari nagusiaren bila jardun dugu eta jardungo dugu, ez baita erraz orri hauetan gizaki erraldoi honen bizitza oparoa laburbiltzerik.

Dena den, zorteko izan gara euskaldunok eta baita ataundarrok ere, urte anitzetan geure artean lanean eta osasuntsu izan baitugu. Horregatik, ezagutzeko parada izan eta euskalgintzan bidelagun izan genuen bi herritarron lan xumea, hutsuneak hutsune, besterik ez da irakurleari eskaini nahi dioguna. Eskerrak, ordea, hemerrotekei eta bidegile berak egindako aitorpenei.



Bildu eta hausnartu.

HAURTZAROAREN ERAGINA

Ba omen zen Ataunen gizon «handi» ttipi bat, Joxemiel zeritzana; «sabioa» esaten zioten herritarrek, asko zekiena, jakintsua, beraz.

1889ko abenduaren 31n jaio zen Ataungo Murkondo auzoko *Peruenezarre* baserrian. Txikitan eskolara joatea ez zuen gogoko. Hasieran gorriak ikusi zituen, erdaraz egin behar izaten zutelako eta, horregatik, beldur zen. Hala ere, tutik ere ulertu gabe hainbat eta hainbat esaldi eta poesia ikasi zituen buruz. Ehun urterekin ere oraindik gogoan zituen.



Jentilbaratza mailoan egin zuen lehen aurkikuntza.



Murkondo auzoko *Peruenezarre* jaiotetxea.

Adin hartako guztiek legez, nahiago zuen, tarteka, sasi-eskola egin eta lagunekin jolasean jardun. Garai hartako gaztetxoek bizimodua egiten zuen, hau da, etxeko eginkizunetan ahal zen neurrian lagundu: soroan, belartzadian, basoan, ukuiluan nahiz sukaldean. Gabonetan eskean *Deo gratias* abestuz eta inauterietan mozorrotuz.



Atzerriko Wundth irakasleak eman zion Euskal Herrirako norabidea.

IKASKETABIDEA

Elizako korurako lagun taldean sarrarazi ondoren, apaiz izateko gogo sortu zitzaion. Amari ez omen zion onik egin, asko ikasi beharko zuelako, baina aitak berehala ireki zion horretarako bidea. Ataungo mundutik irten eta Baliarrain, Gasteiz... beste mundu batean sartzen hasi zen, giro berria ezagutzen, lagun berriak egiten, jakinduriaz osatzen...apaizgintzari lotu zitzaion.

Izaeraz kezkatu eta buruz argia zenez, gauza berrien bila jarduten zuen etengabe, sustraia zuen gogoko eta ez itxura soilik. 1912tik 1914ra bitartean, kezka eta zalantza handiak zituen bere baitan, teoria, ideia, sinesmen, ohitura asko zebilzkion inguruan apaiz izateko atariko urteetan. Dena zitzaion ikasgai, kimika, biologia, erlijioa, ingurua... eta pixkanaka horretantxe hasi zen, hau da, bere ingurua ikusi, behatu, aztertu, bildu, hausnartu eta argitalpenetan zabaltzen. Nondik hasiko eta, esan bezala, etxetik, ataritik, auzotik, ingurutik hasi zen. Hasi bazen hasi zen, baina berehala konturatu zen bizi zen mundu hura bazihoala inortxo ere konturatu gabe. Gaztaroa Ataundik kanpo igaro zuen, batik bat, Gasteiz hirian eta, noski, Wundth irakaslearen

4

esanak mugarritu zuen Barandiaranen ibilbidea:

«...alferrik zabiltza zure kezkek urrutietan argituko dituzulakoan, zeu bizi zaren lekutik hasi behar duzu, dituzun korapiloak askatzen...»

Esan hark jabebarazi zuen horretaz eta giza ekintzak bertatik aztertzeari ekin zion, hain zuzen, berak ordura arte bizi ahal izan zuen kultura. Bazihoala, bazihoala hainbat urtetako bizimodua... bazihoazela kantu zahar eta esaundak, bazihoazela ohiturak, bazihoala ataundarren izaera. Wundth-ek argitu zionez, mundu intelektual eta ikerkuntzan ekiteko, euskal izaerari uko egin beharrik ez zeukan, bertatik hasi baizik.

EUSKO IKASKUNTZAREN BILTZARRA

1918. urtean euskal kulturgintzan ildo nagusienetakoa beteko zuen gertaera izan zen Oñatin, Eusko Ikaskuntzen I. Biltzarra; agian, XX. mendean izan den kultur ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, garrantzitsuena ez bada; batez ere, gerorako oinarri tinkoak jarri zirelako eta Euskal Herriko lurralde guztietako agintarien babesa izan zuelako. Ordura arteko Euskal Herriari buruz ziren bakarkako lanak eta sistema jakinik gabeko azterketei amaiera eman zitzairen, taldeak, laborategiak, argitalpenak eta abar sortzeko oinarria ezarriz.



Osaba eta iloba.

Bederatzehun partaideren artean bertan ziren, besteak beste, Karmelo Etxegarai historia zalea, Julio Urkixo hizkuntzalaria, Azkue, Txomin Agirre, Aita Donostia, eta, nola ez, Telesforo Aranzadi, Enrike Eguren eta Joxe Migel Barandiaran. Dagoeneko, mundu horretan murgildurik zebilenez, euskal prehistoriari buruz bi hitzaldi egin zituen lehendabiziko kongresu hartan. *Eusko-Folklore*-ren sorrera ere Oñatiko kongresuaren ondorioetako bat izan zen.

ETNOLOGIAN HASTAPENAK ETA SUSMO TXARRAK

Ataunen bertan egoera horretaz konturaturik eta Gasteizko apaiztegiko ikasleen bidez, bilketa lanari ekin zion ahal zuen toki gehienetara iristeko asmoz: *Eusko-Folklore* urtekaria sortu zuen 1921ean. Eta bateratsu *Eusko-Folklore. Materiales y Cuestionarios* aldizkaria. Ikerketako orri xume hauei buruz, hara zer zioen Joaquín María Navascués-ek *Folklore y Costumbres de España* liburuan 1931n:

...orri hauek dira orain arte eskain dezakegun talde folklore lanaren adierazgarririk garrantzitsuena...

5



Lapurdiko Sara herriko *Bidartea* etxea.

Horren ondorioz, Real Academia Españolako kide izendatu zuten eta, jarraian, Euskaltzaindiko.

Hala ere, nahiz eta gotzainaren baimen eta onarpen osoz izan, Gasteizko Apaiztegiko bertako erretorearen iritziz, aipatu azterketak hutsalak, denbora-pasakoak eta inongo zientzitasunik gabekoak ziren eta, bere ustez, egoitzak berak ere apaiztegitik kanpora izan behar zuen eta lortu egin zuen. Eta ez hori soilik, Eusko Ikaskuntza Elkarteko bileretara joatea ere galarazi egin zion Barandiarani, «abertzale kutsuko elkarte zen aitzakiaz, erlijioaren bidetik urruntzen ari zela» argudiatuz. 1924. urteko gertaerak dira azkenekook eta Barandiaran apaiztegitik bidaltzeko asmorik ere izan zen. 1925. urtean, argi eta garbi agertzen ditu Barandiaranek *Eusko-Folklore* laborategiaren helburuak:

...apaiztegian sortu nuen laborategia, apaizok gero bizi eta lan egin behar genuen Euskal Herria ezagutzeko asmoz sortu nuen eta, bide batez, nazioartean zen herrien kulturak ikertzeko mugimenduko partaide ere izateko; apaiztegian, berriz, Espainia defendatu aitzakiaz, ez digute euskaldunoi gure kultura ikasten uzten...

Aipagarria da zenbait lagunekin garai hartan izandako solasaldia:

A gizagaixoa, gaizki hasi haiz, orain egiten ari haizen ikerketa horiek direla-eta, laster esango diate separatista haizela...nik kultura zati bat, etnologia, eta horrelako gaiak biltzen ditudalako separatista izango al nauk? Ni, Geologia ikasi nuenean, nire herrian ibili ninduan harriak eta fosilak biltzen eta separatista ez izateko zer egin behar nian, Eskandinaviara joan ala?... ez ez, horretan arrazoi duk, baina orain biltzen ari haizen horiek ez dituk fosilak, ez harriak, horiek gizakien ekintzak dituk eta ikusiko duk...

Ekimen horietan jarduteko, berak zioenez, Wundth ez ezik, Fritz Graebner, Breuil, Wilhelm Schmidt eta, batez ere, Telesforo Aranzadi jotzen ditu maisutzat, hauen irakasbideei jarraiki hartu baitzuen ikerketarako bidea. Aranzadi eta Eguren ikertzaileak, hain zuzen, Ataungo *Antonioeneazpiko* etxeko atarian ezagutu zituen 1916. urtean Aralarren egin behar zuten indusketei ekiteko. Harrezkero, hirurak hainbat lan egin zuten Aralar, Altzania, Aizkorri, Ataun, Bizkaia eta abarretan, 1936ko gerrate zibilak banandu zituen arte. Hogei urte elkarrekin izanda, euskal prehistoria ikerketaren oinarriak sendo ezarri zituzten, ondorengoek jarrai ziezaieten. Argi eta garbi esan

daiteke, ordura arteko ikerketak zaletu hutsen esku baldin baziren, Aranzadi/Barandiaran/Eguren hirukoteak ekin orduko, zientzi kutsu handiagoa lortu zutela. Ekimen honi esker aztertu zituzten Euskal Herriko hainbat leku, hara nola: Santimamiñe, Bolinkoba, Urtiaga, Trebiño, Aralar, Ataun-Burunda, Altzania, Urbia, Aurizperri, Belabieta, Urbasa, Entzia eta abar. Itziarko Urtiagako haitzuloan izan zen hirukoteak industu zuen azken gunea. Ekimen honi elkarrekin Europara egindako bidaiak gehitu behar zaizkio. 1936ko gudak eraginda, bakoitzak alde batera egin eta, harrezkero, ez zuten elkar ikusi.

IKASKETA CURRÍCULUM BERRIEN BULTZATZAILE

Jakina da Fisika eta Geologiarekiko zuen zaletasuna, eta 1913an irrati-telefonía aparailua egin zuen, bertatik atzerrietako albisteen berri izatearren-edo. Gai honen inguruan izan zuen hainbat gorabehera, herritarren elkarrizketak entzun egiten ote zituela-eta. Gasteizko apaiztegian ere bazuen antzeko aparailurik eta behin batez *El Siglo Futuro* izeneko aldizkariako artikulua bat aireratzea erdietsi zuen.

1926an Gasteizko Apaiztegiko erretore izendatu zutenean, ikasketetan gai berriak ezartzeko bideak urratu zituen, apaizgaiak mundurako hobe prestatzearren.



Manuel Arrese irakasle «gogorrari» ikasleek, Barandiaran tarteko, eskertza.

EUSKARAREN HARROBITIK EUSKALTZAIN

1928an euskaltzain urgazle izendatu zuten «euskal-folklorean egindako lanagatik». Jakina da, ordea, beste arrazoi bat ere izan zela erabaki hori hartzeko, hots, Real Academia Española de la Lengua-ko kide izendatu berri baitzuten 1927an.

1965ean izendatu zuten euskaltzain oso:

...euskararen alde orain arte egindako lanen eskerra erakutsi eta gerokoan pizgarri izateko...

Hil arte jarraitu zuen euskaltzain oso izaten, nahiz eta bilkuretara oso urri agertu. Manuel Lekuona euskaltzain buru izendatu zutenean, bere bozka izan zuen, gutun batean agertzen denez.

Berandu bada ere, erabaki haren garrantzia azaleratzeak merezi du, ez baita behar bezala aitortuko arlo honetan Barandiaranek egindako lana. Horretarako, lehenaz gain, Euskaltzaindian ordezkatu zuen Miren Azkarate andereak 1992an sarrera hitzaldian luze eta zabal agertzen du euskararen zenbait arlotan egindako ekarpen joria, hara nola, toponimia, euskalkiak, lexikoa, hiztegi teknikoa, itzulpenak eta abar, guztia zehatz eta joskeraz zuzenez adierazia.



Ikerketetako idatziak atontzen eman zuen zahartzaroa.

1953: ITZULERA ETXERA

Iloba Pilarrek etxea eginda zuen ordurako jaiotetxetik hurbil, zahartzaroa sorterrian igarotzeko asmoz eta Iparraldean iragandako 17 urteen oroitzapenetan Sara izena ezarri zioten etxeari eta 1936an utzitako lanei ekin zien, besteak beste, Urtiagan, hantxe ari zirela harrapatu baitzituen gerrak. Hegoaldera itzultzeko bultzada handik eta hemendik areagotzen ari zen, tartean Manuel Lekuona, Jexux Eloseggi, Manuel Laborde eta Zirikain-Gaiztarro eta abar zirela. Hala ere, Salamankako Unibertsitateko erretore eta euskaltzale Antonio Tovar izan zen, Espainiako Ministerioan zituen adiskidantzen bidez, Joaquín Ruiz Giménez ministro zela, «ideas judeo-masónicas



Sara etxean izan zuen bizileku eta ikertoki.

rojo-separatistas» izeneko salaketa fitxa ezabatzeko bideak egin zituena. 1936an salaketa horiek zirela-eta, kezkatuta eta txundituta zegoen; hara zer zioen:

...nik egin dudana hauxe izan da: herrietako lagunekin batera, lehenengo gizakiaren historia, soziologia ta herrien psikologia ikasten saiatu: horretarako lantoki bezala, jaio nintzen eta bizi naizen herrialdea aukeratu dut eta lan horri eman dizkiot nire kemenak eta nire txanponak...

Itzuli aurretik, izan zuen betarik Uztaritzen, euskal lehen gizakiaz hitz egiteko. Urriaren 21ean iritsi zen sorterrira eta azaroaren 3an Salamankan zen Manuel Larramendi katedra irekitzen. Lehenengo hitzaldian euskal ikasketen egoeraz

jardun zuen eta ondorengo egunetan beste bederatzi eman zituen. Horrela ekin zion Barandiaranek bizitzaren hirugarren aroari, hau da, zahartzaro luze eta oparoari.

ETNIKER

1964an Nafarroako Unibertsitateko Etnología Vasca katedra inauguratu eta 17 urtez jardun zuen bertan euskal kultura irakatsiz; hainbeste ikasle joaten zen saiorik ez omen zen unibertsitate osoan. Bere esanetan, katedra hutsa ez zen ekimen serioa, baldin eta ikerketarik ez bazuen, eta bertako ikasle jarraitzaileekin *Etniker* sortu zuen Nafarroan; gerora Euskal Herri osoan zabalduko zirenak, herrialde bakoitzean erakunde bati lotutako taldeak, hain zuzen, Arabakoa Seminario de Etnología Alavesa-ri, Bizkaikoa Labayruri, Gipuzkoakoa Aranzadi elkarteari, Iparraldekoa Laubururi eta Nafarroakoa Unibertsitateari. *Etniker*-en ari direnek herriz herri egindako inkesten bidez jarduten dute *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* osatuz. Horretarako, herri bakoitzean informatzailearekiko hurbiltasuna duen norbaiten bidez jasotzen da informazioa, Barandiaranek sortutako «*Inkesta etnografiko baterako gida-z*» baliatuz; gida honek 850 itaun ditu eta eredutzat, *Etniker*-ek *Jaiotzatik Ezkontzarako Ohikuneak* izenez argitaratu duen azkenekoetako ikerketa lana har daiteke.

Ikerlari hauen artean, ezin dira aipatu gabe utzi Gurutzi Arregi eta



Munduarekiko ikuspegia euskaldunengan

Ander Manterola; hauek eta beste laurogeiren bat ikerlek osatzen baitituzte *Etniker* taldeak. Arregik dioenez

...20-22 liburuki beharko dira Atlas osoa burutu ahal izateko. Ikerlariok lehenik Barandiaranekin eta ondoren Manterolarekin trebatu gara. Hasieran bakoitzak bere herrian biltzen zituen monografia lokalak prestatzeko datuak, baina 1987an bost urteko eperako plangintza egin eta guztiok batera aritzeko erabakia hartu genuen. Eta ikerketa eta argitalpenak ere aurreikusi genituen. Orduantxe ekin genion Atlasa liburukiz liburuki prestatzeari. 1991n elikadurari buruzkoa atera genuen, 1993an haurren jokoei buruzkoa, 1995ean hiletetako erritoen gainekoa, eta 1998an jaiotzatik ezkontzara bitarteko erritoena...



Lorioa: Lapurdiko etxearen sarrerako aterpea.

Hurrengo ikerketen gaiak honakook izanen dira: artzain eta abeltzainen bizimodua, familia, medikuntza, jantziak, etxea, altzariak, etxeko tresnak, laborantza, arrantza eta nabigazioa.

1991ko azaroan egin zion *Etniker*-ek lehenengo liburukiaren aurkezpena Barandiarani bere etxean. Zeharo

hunkituta, pozik eta esker oneko azaldu zen; horixe baitzen bititza guztian amestutako lanaren emaitzarik nagusiena. Baina ez zuen poz txikiago izan, XX. mendearen hasieran hasitako lanak bazueta eta izango zuela jarraipena oharturik.

Lasai hiltzeko bidea eman ziola dirudi *Etniker* taldeen ekimenak.

12

ALDIZKARIGINTZA

1920an *Eusko-Folklore Materiales y Cuestionarios* sortu zuen; bertan orritxo batzuetan herrietako sineskera, esaunda, ipuin, ohitura, mito eta abar biltzen hasi zen.

1921ean *Eusko-Folklore* aldizkaria, bertan herri arkitektura, bizimodua, ohiturak eta abar biltzen zituen.

1927an *Gimnasyum* eta 1934an, berriz, *Idearium* aldizkariak ere sortu zituen gai erlijiosoak lantzearen.

1946an, Saran bizi zela, *Ikuska* izeneko, Hegoaldeko *Anuario de Eusko-Folklore*-ren hutsaldia betetzeko asmotan sortua, Iparraldeko euskal kultura aztertu eta biltzeko. *Euskal Iker Elkarte*a-k abian jarri zituen hiru hizkuntzatan. Bigarren aroko lehendabiziko alean argi agertzen da aldizkariaren nondik norakoa:

...abiatzen da harkaitzetan barna, oihan eta haranetan barna, bihotz eta ohiduretan barna. Joan mendeetako itsas gizonak bezala, atxikiak garelako Euskal Herriko nortasuna bereiziar, haren aspaldiko izaiteari eta geroko aitzinamenduari...

1947an, berriz, *Eusko-Jakintza* aldizkaria, *Société Internationale des Etudes Basques* deituriko erakundearen ardurapean. Gerraren ondorioz, munduan zehar sakabanaturik ziren eusko ikaskuntzen inguruko historialari, geografo, etnologo eta abarren bilgune bilakatu zen.

Euskal jatorriaren haritik lehendabiziko bilduma.



Ipar Euskal Herrian ere aldizkarigintzan.

LAN GUZTIAK

Hogeita bi tomotan daude bilduta Barandiaranen lan gehienak. Hala ere, inprimaketari dagokionez, oso haserre izaten zen, batetik salneurri handiegia zutelako eta, bestetik, lanen ordena falta, liburu traketsak, oker asko, koadernaketa ahula eta abar. Hala ere, bere haserrea azaleratu gabe ez zuen utzi eta hala zioen:

... komeni da indize eta akatsak zuzentzeko beste ale bat argitaratzea, batik bat, inprimategiko prentsek argitaratzaileak behar bezala prentsatzan jakin ez zutelako...

Arlo honetan aipagarria da Jexux Altuna, Koro Mariezkurrena eta Consuelo Mariezkurrenak egindako lan eskergaitza; *Sara* bildumako *Índice de términos arqueológicos contenidos en las obras de D. José Miguel de Barandiaran* liburua, hain zuen. Bertan edozein ikerlek Joxe Migel Barandiaranen idatzi eta argitalpenetako gaiak erabiltzeko kronologikoki zerrendatuta baitaude.

Hala ere, bibliografiagintzan Ander Manterola etnologoa izan da Barandiaranen liburu eta idatzi gehienak biltzea erdietsi duena; ekimen horretan aitzindari izan diren Jon Bilbao eta Mario Grande-ren lanetan oinarrituta, ia bostehuneko zerrenda osatu du.

Azken unera arte lanean jardun zuen eta horren lekuko da 1988an plazaratutako *Euskal Herriko Mitoak*. *Mitos del Pueblo Vasco* liburu eder eta mardula; Juan Lekuonaren langintzaz, Ander Manterolaren hitzaurreaz eta Jose Antonio Sistiagaren marrazkiz hornitua. Euskal pertsonaia mitologikoen berri zehatz eta zorrotza damaigu bertan (Atarrabi, Ortzi, Mari, Gaueko, Eate, Mateo Txistu, Maide, Mairu, Jentil, Inguma, Alarabi, Lamin, Torto, Basajaun, Zezengorri, Iraunsuge eta abar).



Jentilen ondarea kristauen oroimenean.

IPAR ETA HEGO EUSKAL HERRIAREN LOTZAILA

Nahiz eta 1936an, gerra zibila zela-eta, Iparraldera ihesi joan beharra izan, berriro Gasteiza itzultzeko asmoz, berehala ohartu zen ezinezkoa izango zuela, bere aurka zituen salaketengatik, eta bertan gelditzea erabaki zuen. Ondorioz, zekien lanari ekin zion, hasieran bere kontura eta gerora Frantziako Hezkuntza Ministerioaren esanetara Iparraldeko arduradun gisa. 1946. urtean *Ikuska* izeneko Euskal Ikerketa Institutua eta izen bereko aldizkaria sortu zituen. Bertan Baiona, Bordele, Paris, Tolosa, Helsinki, Estokolmo, Los Angeles, Berkeley eta abarretako erakundeek parte hartzen zuten eta 1951. urtera arte iraun zuen. Hegoaldeko *Eusko-Folklore*-ren jarraipena izan zen, Iparraldean egindako ikerketa eta materialez osaturik zegoen eta 1951ra arte iraun zuen. Garai hartan sortu zen *Eusko-Ikaskuntza* aldizkaria ere eta Joxe Migel Barandiaran izan zuen zuzendari. Aro horretan Europako hainbat kongresutan Euskal Herrian egindako ikerketen berri eman zuen. 1947. urtean Eusko Ikaskuntza elkartearen lehendakari izendatu zuten.

Bada, ordea, Saran zela, aski argi ez den gertaera bitxia. Serafin Esnaolak

idatzita duenez, guda bizi-bizian zela, espainiar kardinal batek *El caso de España* izeneko liburuxka kaleratu zuen. Eta hari erantzunez, Angel de Zumeta ezizenez, beste bi liburuxka barreiatu ziren 1937an, bata, *Un cardenal español y los católicos vascos. La conciencia cristiana ante la guerra de la Península Ibérica* eta, bestea, *Ideología de la invasión fascista.- Los Documentos episcopales y los nacionalistas vascos*. Barandiaran izan zitekeen bion egilea.

Bestetik, Mateo Mujika Urrestarazu gotzainak, bazterrak aztoratu zituen «Imperativos de mi conciencia» izeneko dokumentua plazaratu zuen, frankismoaren aurrean euskal elizaren iritzia azalduz; aditu guztien arabera, Barandiaranek zerikusi handia izan zuen, berak bidalitako kezka edo galdera zerrenda batean oinarritu baitzen aipatu dokumentua kaleratzeko.

Dokumentu horietaz gain, orduan ezkutuan zabaldu ziren euskal elizaren beste hainbatetan, askok eta askok Barandiaranen eskua ikusi dute; fedea eta herriarekiko atxikimen irmoaren adierazgarri. Horien artean dago 1948an euskal apaizek Vatikanora bidali nahi zutena, gerora munduan zehar hedatzeko.

1950ean 130 apaizek Gipuzkoako gotzainari igorritakoan esku hartze handia izan zuen Barandiaranek.

Eta, azkenik, 1956an greba sonatua izan zen Euskadin, batik bat, JOC eta HOAC-ek bultzaturik. Elizgizonak kezkaturik, elizaren jarrera bultzatu nahi izan zuten. Barandiaran izan zen Font Andreu gotzainari eskutitza idatzi zuena.

EUSKAREKIKO KONPROMEZUA

Euskararekiko atxikimendua beti zeraman barnean eta adindurik bazen ere, laguntza eskatu zioten aldiro, gogo biziz erantzuten zuen. 1977ko urriaren 16an izan zen lehenengo Kilometroak festa Lazkao eta Beasainen; hantxe parte hartu zuen 87 urterekin eta, harrezkero, beste hainbatetan.

Geroztik, ahal zuen arte, euskararen aldeko ekimen guztiei laguntza eta babesa eskaini zien.

15



Ekaingo haitzuloa, euskal prehistoriaren santutegia.

ILOBA PILAR: SENIDE ETA LAGUNTZAILEA

Esanak dioen legez, gizaki handien alboan, handi den beste norbait behar omen da.

Pilarrek gaztetan egin zuen hautua: osabaren laguntzaile izatea.

Halaxe izan du Pilar etxean eta kanpoan, Saran nahiz Ataunen, poz-saminetan, haserre-muzinaldietan, gatazka-barealdietan. Pilar izan du zutabe, jentilen errainu eta fedearen itzal. Pilar izan du, anitzetan berbarik gabe, aholkulari zuzen eta fidakorrena. Pilar izan da osaba Joxe Migel, begiluze eta notiziazale hutsengandik babestu duen erromako zubia. Pilar izan da denborari neurria hartzen lagundu diona. Pilar izan da, azkenik, osasuna zaindu diona, hau bai hori ez, orain hau eta gero hori...

Pilarrek lagundu dio hara eta hona, askotan bere lanak etenda, hitzaldiren batera-edo joan behar zuenean.

Pilarrek hartu eta artatu izan ditu bisitan zetozenak.

Laguntzaile aparta izan zuen Pilar «Lan osoak» prestatzerakoan, bertatik bertarako lan luze eta nekosoan zuzenketetan lagunduz.

Baina Barandiaranek ilobari errezoan eta etxearen antolaketan

laguntzen ere jakin zuen, sarrera-gastu guztiak idatzi egiten baitzituen. Bitxikeria bada ere, Saran jostorrazari haria sartzen ziona Barandiaran zen.

Pilarrek bizitza osoan berorika hitz egin zion osabari eta berak ilobari, berriz, hika.

...ez hadi urrutira joan Pilar, badaezpada ere, hiltzea gertatuta ere...



Pilar Barandiaran: iloba, lankide eta babes.



OMENALDI ETA OHOREA BURUZ GAIN

Ipar Euskal Herritik itzuli ondoren, batez ere, lau eginkizun nagusi izan zituen:

- a) Hego Euskal Herrian utzitako lanei jarraipena eman.
- b) *Etniker* taldeak sortu, Euskal Herriko Atlas Etno-Linguistikoa bultzatzearen.
- c) Idatzitako lan guztiak bildu eta argitaratu.
- d) Herritar, erakunde nahiz agintariengandik ohore eta omena jaso.

Ez zen omenaldi zale baina bihotzez eskertzen zituen.



Urtez urteko emaitzen bilgunea.

Omen, ohore, titulu, domina, gurutze eta izendapen guztien artean, lehendabizikoak izan zituen, batik bat, hunkigarrienak, herritarrek eta adiskideek eskaini zizkiotenak. Hauetaz gain, Euskal Herriko nahiz atzerriko hainbat herrik, erakundek, agintarik, elkartek... azaldu zioten, behin eta berriz, gurtza eta miresmena. Eta etorkizunean ere bere lana gogoratu eta jarraikia izan dadin, hainbat kultur etxe, eskola, lizeo, katedra, beka, polikiroldegi, auzo, kale, plaza eta liburutegik Barandiaran izena dute ikur.

17



Gizakia eta sinesmenaren arteko lotura. Ataungo udaletxeko ezkaratzean. Aitor Mendizabal.

KRITIKAK

Barandiaranek kritika mota bi jaso izan ditu: bata, ikerketa orotan euskalduntasunaren bila zebilen susmoa eta, bestea, bakar-lanean jardutea.

18

Lehendabizikoari dagokionez, ikerketei kutsu politikoa zerien. Berak, ordea, ez zion muzin egin ikertzeari eta adierazi ere bai garbi asko, ikerketek kultura herrikoia dutela oinarri eta beronetan bertako kultur gaiak ez ezik, beste hainbat kulturatako ezaugarriak ere azaltzen direla eta beroriek jaso besterik ez zuela egin, argitalpenetan ikus

daitekeenez. Jokabide hori argi eta garbi zuen:

...gure herrian gertaera, sinesmen eta ohiturak indoeuropar eta beste kultura batzuetan ere agertzen baitira, hara nola, Eskandinavia, Italia, Errusia, Alemania edo Ameriketako Missourin. Erabat bitxi edo berezi den zerbait edozein etniantan aurkitzea ia ezinezkoa da; horregatik, kultura batek elementu kultural berri bat sortzea baino meritu handiagoa du, elementu orokor horiei etnia jakin batek, euskaldun herriak gure kasuan, eman dion eta eman liezaiokeen kutsu bereziak...



Bere lan-lekua. Aitor Mendizabal.

Bigarren kritikari helduz, hau da, eskola edo jarraitzaileak sortu ez izanari buruz, 1978an Euskal Herriko Unibertsitateak *honoris causa doktore* izendatu zuenean, Barandiaranek berak adierazitakoa argigarri izan daiteke.

1921ean euskal etnologiaren ikertzaile-taldea antolatu eta Eusko-Folklore orriak eta izen bereko Urtekaria argitaratzen hasi nintzen, Euskal Herriaren aintzinatikako kulturari buruzko gaiak dakartzatela. 1936ko gudua oztupo izan zuen ekimen hark, baina gaur egun ere Euskal Herri guztian ari diren ikerlari gaztez eta euskal jakintzen alor honetan berariz jakitun direnez osatutako Etniker taldeak ditugu harren ordezkari eta jarraitzaile.

Barandiaranen lana aztertzerakoan, bere *Lan guztiak* abiapuntutzat harturik, osagarri gisa izan daitekeen beste lan bat aipatu nahi genuke: Joxemartin Apalategi Begiriztainek *Anuario de Eusko-Folklore*n 1981ean argitaratutako *Acercamiento al pensamiento paleontológico de Joxemiel Barandiaran* izenekoa. Bertan Barandiaranengan zenbait ikerlari eta pentsalarik izan duten eraginaren gainean egiten da hausnarketa, hara nola, Aranzadi eta Obermaier, eta ondoren Barandiaranen pentsamendu paleontologikoa zertan datzan agertzen da.

JENDEAREKIKOA

Ezagutu dugunok badakigu edozeinenganako zuen xalotasuna. Ez zuen gogo txarrik inoiz agertzen. Norbaiten zain zenean, urduri izaten zen. Baina geuk herritar gisa ezagutu dugunean, hainbat berezitasun nabaritu ahal izan diogu bere izaeran. Bizitzeari zion maitasuna eta, horrekin lotuta, bizitzako gauza xumeenei. Zergatik ote? Beharbada, bere lana beti herri xehearengandik sineskerak, ohiturak, hau da, bizitza bera jasotzea izan delako. Horregatik, auzokoaren, herritarraren bizimoduaz jakingura izaten zen, gogozko zituen, iloba eta biak beste norbaitekin, lorioan jesarrita ilunabarrean izaten zituzten solasaldiak. Zeri buruz, ordea? Eguraldia, albisteak, laboreak, kontu zaharrak, erreko amuarrainak, urte-sasoia, jendearen bizimodua, gaurko gazteen ohiturak, bakea... Denboraren joanari oztoporik jartzen ez ziona izan zen.

Berbetarako beti prest zen eta bizi osoan besteek esandakoa biltzen jardun arren, kontulari bizi eta aberats bihurtu zen; ezezagunei zuka eta iloba, tarteriko eta herritarrei hika mintzatuz.

ATAUNEN IZAN ZUEN HAISERA ETA AMAIERA

Jaioterriaren ukitu nabarmena izan zuen bizitza osoan. Nahiz eta kanpoherrietan sarri ibili, lotura handia izan du jaioterriarekin. Hasteko, haurtzaroko giroa erabakigarria izan zuen eta gogo biziz kontatu ohi zuen eskolan euskaraz hitz egiteagatik maisuak nolatan burdinazko eraztuna eramatera behartzen zituen garaia, baina jarraian maisu haren borondate ona ere azaltzen bazekien, «...zenbait gauza arbelean euskaraz idazteko ohitura bazuen guk hobe ulertzeko baina berehalaxe kendu egiten zuen, bera ere beldur baitzen...».

Lehen ikerketa Ataungo Jentilbaratzan egin zuen eta garai berean aurkitu zituen lehendabiziko trikuharriak Aralarren.

Aranzadi eta Eguren ikerlariekin ere Ataun inguruan egin zituen lehendabiziko indusketak gerra aurrean. Iparraldetik etorri berritan haurtzaroko leku, zoko eta bazterrak berriro ikusteari ekin zion, jatorriarekiko loturaz bat eginez. Ondorioz, Ataungo plana ere egin zuen eta 1970-71n hainbat indusketa egin zituen inguruko Limurita, Pikandieta eta Usategin.

Ataun, ikerketaren abiapuntu eta bizitzaren zentzu.



Azkenik, zahartzaro luzea haurtzaroko inguruari atxiki iragan zuen, berak sarri esan ohi zuen bezala:

«...hemen inguruko mendi, ibai, eliza, baserri eta lekuak etengabe hizketan ari zaizkit» edo «hiltzeko ez naiz beldur, baina bizi egin nahi dut» edo «herrian hiltzen diren guztiak ni baino gazteagoak dira, hau da komeria...»

Bestetik, Ataunen bertan hasi zen ipuin eta esaunda zaharrak biltzen, hasieran amarengandik eta gerora herritarrengandik.

Ataungo herriak agur eta ohore izan dio, Ataun izena eta Euskal Herriarena hainbat lekutan zabaltzeagatik; hori eskertzeko, omenaldiez gain, «herriko seme kuttun» izendatu zuen udalak 1984an eta herriko eskolari Joxemiel Barandiaran izena ezarri.

Hil zen, baina urtero gogoratzen dira jaiotegun eta heriotza eguna ere, kulturaren inguruko ekitaldiez eta berak bildutako esaunda eta ipuinetan oinarritutako *Jentilen etorrera* izeneko kale antzerkiaren bidez, neguaren atariko sanmartiñetan. Urteberri oro bada norbait lehendabiziko ikerketa egin zuen gunean, abiapuntuan, Jentilbaratzan.



Urrezko maindirea zela eta, haserretu ziren jentilak Agerre baserrikoekin.

JOXEMIEL BARANDIARAN FUNDAZIOA

Bera artean bizi zela sortu zen, hain zuzen, 1989ko maiatzaren 29an eta hauexek dira Fundazioa osatzen dutenak: Eusko Jaurjaritza, Nafarroako Gobernua, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ataungo Udala, Pilar Barandiaran eta Eusko Ikaskuntzaren inguruko beste 8 partaide aditu. Gaur egun, Jexux Altuna da Fundazio buru.

Fundazioaren helburu nagusiak hauexek dira hitzez hitz:

- Jose Migel Barandiaran jaunaren lan ugari eta zabala sistematikoki bildu, bai lan argitaratua bai argitaragabea, izkribu guztien originalak katalogatu eta artxibatuz, hala nola bere elkarrizketa, hitzaldi, batzar edo filmaketa bidez, magnetikoki edo beste nolnahi jaso den beste edozein aho ekarmenak batuz.
- Bere zientzi ekoizpenaren argitalpen kritiko zaindua bultzatu, adituen batzorde egokiak sortuz.
- Bere bizitza, pentsakizun eta zientzia eta kulturaganako ekarmena aztertu, obra nazio eta nazioarte mailan zabalduz.
- Jose Migel Barandiaran jaunak bere bizitza osoan zehar hasi eta jarraitu zuen Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren ikerketa lanak jarraitu. Honetarako, Baskoniako lurralde desberdinetan berak sorturiko eta proiektu honetan lanean diharduten zenbait *Etniker* talde baliabidez hornitu eta potentziatuko ditu.
- Euskal Herria Baskonia mailan berak landu dituen gaietan ikerketa, egitarau eta bekak bultzatu, honakoak izanik landuriko gaiak: Prehistoria, Arkeologia, Antropologia eta Etnologia.
- Ikastaldi, mintegi, hitzaldi edo antzeko ekintzak sortu eta Erakundeak bultzaturiko ikerketa eta azterketen emaitzak argitaratu.
- Erakundeari bere helburuak betetzen lagunduko dion beste edozein bide.

Lan honen guztiaren muinean badira, besteak beste, zenbait arlo aipagarri:

- a) Nafarroako Unibertsitatean emandako eskolak Maria Amor Begiriztainek magnetofonoz jasota ditu; horien transkribaketa egin ondoren argitaratu egingo dira.

- b) Bizitza osoan ikusitakoa, entzundakoa edo, besterik gabe, bere iritziak «egunerokoa» idazteko ohitura. Koaderno horietan, ordea, bizi den jende askoren aipamenak egiten direnez gero, oraingoz ez dira argitaratuko.
- c) Aurrekoaren bide beretik, egindako ikerketa guztiak ere jaso eta idatzi egiten zituen, bai baserriz baserri edo herriz herri egindakoak nahiz indusketaren berri ematen dutenak; hauek ikerlarien esku jarriko dira.

- d) Zinemagintzari dagokionez, harrigarria izan da 1999. urtean Sara etxeko ganbaran azaldu dira pelikulak. Berorietan 1920. inguruko bizimodua, apaiztegia eta familia irudiak azaltzen dira. Garai hartako irudi urri denez, interesgarri izan daitezke.

Fundazioaren asmo nagusienetakoa, besteak beste, Sara etxea museo eta ikerketa gun e bilakatzea da.

23



Ataungo Herriaren geroa, Joxemiel Barandiaran eskola.

HERIOTZA

1991ko abenduaren 21ean hil zen Ataungo Sara etxean ia 102 urteko mundualdiaren ondoren.

Urte jori eta emankorra, nahiz osasunak ez lagundu. Gertaera anitz izan zuen agurreko urtean: Espainiako errege-erreginen bisita, Carlos III.aren Gurutze handia, Principe de Asturias sarirako izendapena, Gure lehen urratsa (erakusketa), Bizkaiko Aldundiaren Urrezko Luma, bizkaitar liburuzaleen Zilarrezko Luma, Barandiaran izeneko ikerketa bekarako deialdia, *Eusko-Ikaskuntzaren Cuadernos de Sección. Antropología/Etnología*-ren argitalpena

eta abar. Etxean nahiz ospitalean izandako bisitaldiekin batera, itzaltzen joan zen Ataungo Jose Migel Barandiaran.

Komunikabideetako lehen albiste izan zen bere heriotza eta egunkari guztiek gehigarri bereziak argitaratu zituzten. Etxetik elizara bitarteko doluan herritarrez gain, Ardantza lehendakaria eta Alli Nafarroako Gobernu burua zirela egin zen, jarraian beste hainbat agintari, zientzialari, kulturkide, Ararteko, unibertsitateko errektore, idazle, eskultore, euskaltzain, ikerlari eta, batez ere, herritarrak. Hileta meza Euskal Herriko sei gotzain eta hirurogeiren bat apaizen artean eman zuten.



Solasa eta herria maite zituen ataurdarra.

BARANDIARANI BURUZKO ERRANAK

«...komunikabideetan bere irudia eta izena behin eta berriz azaldu arren, nahiago zuen edozein herritarrekin inguruaz, eguraldiaz edo eguneroko bizimoduaz solasean aritzea...»

(Pilar Barandiaran)

«...gaur egun euskaldunok geure iraganari buruz dakigun ezer gutxi hori Barandiaran eta Mitxelenari zor diegu...»

(Edorta Kortadi)

«euskal bibliografiak izan duen idazlerik emankorrenetakoa dugu On Joxe Migel...»

(Ander Manterola)

«...etorkizunean gauzak interpreta ditzakegu, baina interpretazio horiek guztiek ikertzaile honek jaso dituen gai eta datuetatik abiatu beharko dute...»

(Jexux Altuna)

«...garai bateko ipuinak irudimenean bizituz, Joxe Migelek jakintza arloan fruitu aberats emankor bihurtu ditu... jarraitzaile ugari izan ditu eta eskola bat sortu du eta hori oso garrantzitsua da; hori ez dute denek lortzen»

(Juan Garmendia Larrañaga)

«...Etniker taldeetan gaur egun makinatxo bat gaztek hartzen dau parte, batez be unibertsitariak, eta beti maixu izan dogun On Joxe Migel Barandiaranek egituratu eta bere bizi guztian amestu izan dauan egitasmoaren garrantziaz konturatu dira gazteak... Etniker taldeko guztiak gara Barandiaranen eskolako kide»

(Gurutzi Arregi)

«...garai berri bat sortu zuen, Ertarotik jalgi bagina bezala. Barandiaranek funtsezko egitarau zientifikoa eraiki du...»

(Mikel Duvert)

«...bere bizi guztian –eta zer bizi luzea!– euskeraren zerbitzari on eta leiala izanez, bide urratzaile izanik, etnologia eta aurre-historia alorretan, eman dio euskarari Detxeparek idatzi zuen bezala *behar duien tornua* eta Detxepareren pare nekarre nik gaur : Ataungo herria, benedika dadila!...»

(Jean Haritschelhar)

«... bere lana irakurtzean, Sabino Aranarenak datozkit gogora. Eta uste dut, bien idatzien pare-pareko irakurketa eginez gero, euskal kulturaren bi aintzindarion arteko antzekotasuna nabarmen daitekeela, planteamendu eta pentsamenduei dagokienez»

(Joan Prats)

«...gerra zibilaren aurreko aldian, Gasteizko apaiztegiak izan zuen gorakada kulturallean eragin handia izan zuen...»

(Luis Barandiaran)

«...baina Barandiaran beti bera. Historiaurrean eta etnografian bezala, gainerako alorretan prestu eta hotz, datuei kasu eginez, asmakeriak eta sasi letratuen erretolilak bazterturik...»

(Henrike Knörr)

«...euskaldun modernoak lau leiho nagusi ditu lehengo Euskal Herria ikusteko. Lau zubi nagusi, lau zutabe sendo oinarrituak: Azkue, Lekuona, Orixe eta Barandiaran. Deusik asmatu gabe jokatu du herriaren jakintza biltzean, ehun urtetan entzun eta ikusi duena paperera aldatuz, eskribau lege...»

(Joxe Ramon Zubimendi)

«... jarraitzaile asko izan du eta jende asko gara, gaur bertan ere, berak erakutsitako bidean lanean ari garenak...»

(Fermin Leizaola)

«XX. mendeko euskal artistarik garrantzitsuena ez baita Oteiza izan, Barandiaran baizik. Barandiaranek, bere azterketen bidez, izugarrizko material piloa jarri du egungo artista plastikoen esku...»

(Koldo Azpiazu)

«...unibertsitateko klaseetan baino askozaz gehiago ikasi nuen Jose Migel Barandiaranekin, haietan ikaskuntza programatikoezia eta zientzia bera ere asignatura baita. Harrigarria da tradizioa biltzean izan duen hizkuntz zehaztasuna... Zer izango ote da Barandiaranek gure artetik alde egiten duenean?»

(Julio Caro Baroja)

«... Barandiaranen meritua ez dago egin zuenean, egindako garaian baizik. Bera izan da ondorengo etnologo guztien maisu. Gero sortu diren antropologia eta arkeologia belaunaldiak bere eskolakoak gara...»

(Jose Mari Satrustegi)

«... zuen maitatzeko gaitasunak, adimen sakontasunak, umoreak eta lanerako gogoak bilakatu zuen gizaki handi... etxe inguruan ibilian ikusten nuenean, Kant filosofoa zetorkidan gogora, metro gutxitan egiten baitzuen bat izadiaz...»

(Eduardo Txillida)

«...1934an argitaratu zuen bere ikerkuntzazko bizitza osoko goi mailako liburua, Euskalerriko lehen gizona...»

(Joxemartin Apalategi Begiriztain)





27

Nolako ingurua, halako gizakia.

TESTAMENTUA

Gizabidea

«Gizakiari maiz sortzen zaizkio honako galdera hauek: ni zer naiz? Ni zertarako naiz?

Galde hauei ematen dizkiegun erantzuerek adierazten digute gizabidea.

Ni zer naiz? Adimena duena gizakia eta, honen bidez, bere bizikera gauza askotan zuzendu eta ibilarazten duena.

Hala ere, ez naiz nire baitan edozein gauzatarako. Nire baitan guztietarako banintz, ez nintzateke hilko, ni behintzat. Baina...

Ni zertarako naiz? Nire baitan ez izanik, beste baten baitan izan beharko. Beste bat hori baino lehenagokoa eta handiagoa noski: Jainkoa, alegia. Hara bada nire egiteko bat. Horretarako naiz beraz: Jainkoa eta berak maite dituen gure lagun hurkoa maite izateko. Hara hor gizabide edo bere oinarria.

Ataunen, 1989ko azaroaren 20an.»

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Jexux Aizpurua Barandiaran.*
- *Jon Aizpurua Barandiaran.*
- *Joxemartin Apalategi.*
- *Barandiaran Fundazioa.*
- *Joxemari Setien.*
- *B. Oiartzabal.*
- *Angel Ruiz de Azua.*
- *Joxetxo Zufiaurre.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1616-6 (Obra osoa)
84-457-1620-4

L.G.: BI-3152-00

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística